

2022-2023 IKASTURTERAKO BIZKAIA TRANTSIZIO ENERGETIKOA PROGRAMAREN OINARRIAK

XEDAPEN OROKORRAK

Bizkaia Talent irabazi-asmorik gabeko elkartearen helburua prestakuntza handiko pertsonak atxikitzeko, erakartzeko eta elkartzeko baldintzak eta prozesuak bultzatzea eta laguntzea da, Bizkaiko erakundeen berrikuntza eta ezagutza aurreratuko arloak sustatuz.

Bizkaia Talent honako bazkide hauek osatzen dute: Bilbao Bizkaia Kutxa (BBK), BEAZ, CIC bioGUNE, Tecnalía, Iberdrola, Idom, ITP Aero, Mondragon, Sener, Deustuko Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea eta Bizkaiko Foru Aldundia. Elkartearen lehendakaritza Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailari dagokio.

Gaur egungo egoeran, trantsizio energetikoa berotze globala arintzeko ekintza klimatikoaren beharretik sortzen da. Kyotoko Protokoloan, 1997an, berotegi-efektuko gasak identifikatu ziren berotze globalaren eragile gisa, eta Parisko Akordioan, 2012an, helburu gisa adierazi zen berotze globala 2°C-tik behera mugatzea 2050. urtean. Egungo eredu energetikoa erregai fosiletan oinarritzen da gehienbat, eta erregai fosilek berotegi-efektuko gasak sortzen dituzte, batez ere CO₂. Beraz, beharrezkoa da erregai fosilekiko mendekotasuna murriztuko duen trantsizio energetikoa gauzatzea, eta horrek CO₂ igortzen ez duten beste energia-iturri batzuetara aldatzea dakar, hala nola berriztagarrietara, eta energiaren sorreran eta kontsumoan kudeaketa eta eraginkortasuna hobetzeko neurriak hartzea. Trantsizio energetiko horrek eragina izango du egungo kontsumo-ereduetan hainbat esparrutan, hala nola energia elektrikoaren sorreran, garraioan eta mugikortasunean, hiri-/bizitegi-kontsumoan eta industrian. Izan ere, eredu horiek egokitu egin beharko dira datozen 3 hamarkadetan, 2050eko helburua betetzeko.

Ildo horretan, Bizkaiko Foru Aldundiaren **Bizkaia Egiten Planean** lehenetsitako estrategien barruan, **EIC – Energy Intelligence Center** -proiektua garatzen ari da. Zentro horrek Bizkaia nazioarteko erreferente bihurtuko du energia-sektorean eta energia-trantsizioan, eta euskal energia-sektorearen lehiakortasuna eta lidergoa sendotzen lagunduko du. Lortu nahi den helburua energia sortzeko eredu berriak

garatzea da, abangoardiako teknologien bidez Bizkaian trakzio-efektua izango duten proiektu handien garapena bultzatuz eta sektorea eraldatzen lagunduz, etorkizuneko eskakizunetara egokitzeko.

Esparru horretan, Bizkaia Talentek kudeatuko duen 2022-2023 Bizkaia Trantsizio Energetikoa Programaren lehen deialdia aurkeztu du Bizkaiko Foru Aldundiak. Programa hori kualifikazio handiko pertsoneri zuzenduta dago, eta unibertsitateek eskaintzen duten trantsizio energetikoaren sektorean prestakuntza espezializatua emateko da, haien gaikuntza hobetzeko eta agertoki global berrira egokitzeko.

Bizkaiko trantsizio energetikoaren garapenak, eskaintzen dituen aukerak aprobetxatuz, aukera emango dio lurraldeari energia-munduan abangoardia izaten jarraitzeko, berritzeko eta talentua eta inbertsioa erakartzeko. Horregatik guztiagatik, 2022-2023 Bizkaia Trantsizio Energetikoa Programaren helburua trantsizio energetikoaren sektorean prestakuntza, ezagutza eta gaitasunen garapena maila gorenean sustatzea da, Bizkaia energia-iturri berriak garatzen lagunduko duten eta energiaren sorkuntzan eta kontsumoan kudeaketa eta eraginkortasuna hobetuko duten profesional prestatuak izan ditzan.

Toki-erakundeen eta unibertsitateen arteko lankidetzak funtsezkoa da kalitatezko prestakuntza eskaintzeko. Horregatik, beharrezkoa da unibertsitateek aliatu gisa duten zeregina indartzea, Bizkaia etorkizuneko garapen eta operotasunari lagunduko dion epe luzeko harreman-esparru egonkor bat sortuz, Bizkaiko Foru Aldundiaren lan-ardatz nagusietan lehentasunez eraginez, horietako bat trantsizio energetikoa izanik.

1. XEDEA

Programaren xedea kualifikazio handiko pertsonen trantsizio energetikoari lotutako prestakuntza espezializatua eskura dezaten erraztea da, kostuaren zati bat edo osoa finantzatuz, sektore energetikoaren eraldaketa bultzatze aldera.

2. ONURADUNEN BALDINTZAK

Baldintza hauek betetzen dituzten pertsona fisikoek eman dezakete izena 2022-2023 Bizkaia Trantsizio Energetikoa Programan:

1. Trantsizio energetikoarekin lotutako ezagutzetan sakondu nahi duten eta unibertsitate-titulazioa duten pertsonak, baldintza hauek betetzen dutenak:

- a) Bizkaian jaiotako izan edo administrazio-aztertasuna Bizkaian izatea, eskabideak aurkezteko epea ireki aurreko 36 hilabete (3 urte) baino gehiagoko antzintasunarekin.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate batek 2022-2023 ikasturterako trantsizio energetikoaren esparruan espezializazioa eskaintzen duten master-ikasketak egiteko eskaera egin izana (masterra 2022an hasi duten ikasleak) eta bertan onartua izatea. Bizkaia Trantsizio Energetikoa Programaren finantzatuko diren masterren zerrenda oinarri hauen 3. puntuan dago zehaztuta, finantzatuko diren masterren deskribapenean.

3. FINANTZATUKO DIREN MASTERREN BALDINTZAK

1. Masterra 2022-2023 ikasturtean garatu beharko da.
2. Masterra Euskal Autonomia Erkidegoan eman beharko da.
3. Bizkaia Trantsizio Energetikoa Programaren deialdian finantzatu diren Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateek emandako masterren zerrenda:
 - 1) [Hidrogeno Teknologien Unibertsitate arteko Masterra](#)
 - 2) [Automatizazio, Elektronika eta Industria Kontrola Masterra](#)
 - 3) [Kontrol Ingeniaritza, Automatizazioa eta Robotika Masterra](#)
 - 4) [Energia Berriztagarrien Integrazioa Sistema Elektrikoan Masterra](#)
 - 5) [Sistema Elektroniko Aurreratuak Masterra](#).
 - 6) [Energia Biltegitratzeko eta Eraldatzeko Materialak Erasmus Mundus Masterra](#).
 - 7) [Ingeniaritza Energetiko Jasangarria masterra](#)
 - 8) [Energia Berriztagarrien Integrazioa Sistema Elektrikoan masterra](#)
 - 9) [Sistema elektroniko aurreratuak masterra](#)
 - 10) [Kontrola Sare Elektriko Adimentsu eta Sorkuntza Banatua masterra](#)

Deialdi honetan sartutako masterren zerrenda trantsizio energetikoaren erronkan parte hartzen duten eragile nagusiekin batera definitu da, eta Bizkaiko sektore energetikoan espezializatutako pertsonen egungo premiari erantzunez gehien egokitzen direnak hautatu dira.

4. DIRU-ZUZKIDURA, LAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA ONURADUN KOPURUA

2022ko deialdirako diru-zuzkidura, guztira, **52.000 €**-koa da.

Trantsizio energetikoaren arloko espezializazio-masterraren zati bat finantzatuko da, gehienez ere **26 hautagaitza onuradunen** artean. Onuradun bakoitzak **2.000 €** jasoko ditu masterra finantzatzeko, eta zenbateko horrek ezin izango du, inola ere, matrikularen kostua gainditu.

Deialdi honetan esleitu ez diren bekak, osorik esleitzerik ez badago, 2023ko deialdira bideratu ahal izango dira, Programa honen bigarren edizioan eskainitako beken kopurua handituz.

5. DEIALDIAREN EPEAK

Eskaerak aurkezteko epea **azaroaren 17a** izango da, **14:00**etan, honako egoera hauetakoren bat gertatu arte:

- a. Aurrekontu erabilgarria agortzea
- b. Eskaeren kopurua eta/edo erabiltzen diren beste datu batzuk kontuan hartuta, aurrekontu erabilgarria agortuko dela ulertzea.
- c. 2022ko **abenduaren 1eko 14:00**ak iristea.

Azken ebazpena: 2022ko abenduaren 15a

Bizkaia Talentek fase bakoitzaren epeak luzatu ahal izango ditu, programaren beharren arabera.

6. ESKAERA PROZESUA

6.1. Eskaerari buruzko informazio orokorra

Deialdi honi buruzko informazioa hemen dago eskuragarri:
<http://www.bizkaiatalent.eus>.

2022-2023 ikasturterako Bizkaia Trantsizio Energetikoa laguntza-programan parte hartu nahi duten hautagai hautagarriek laguntza eskatu ahal izango dute eskaera behar bezala aurkezteko, posta elektronikoko bidez (bizkaiatenergia@bizkaiatalent.eus), +34 94 479 54 28 telefonoaren bidez edo aurrez aurreko hitzordua eskatuta Bizkaia Talent-en bulegoan.

2022ko **abenduaren 1eko 14:00etan** izango da eskaera bidaltzeko azken eguna, 2022-2023 Bizkaia Trantsizio Energetikoa Programan aurkezteko behar den dokumentazioa barne.

Bizkaia Talent-ek beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio eta/edo informazio osagarri guztia eska dezake, ebaluazio-prozesuko edozein unetan aurkeztutako eskabidea behar bezala ulertu eta baloratzeko.

Eskatzaileek prozesu osoan zehar aurkeztutako informazioaren eta/edo dokumentazioaren egiazkotasunaren eta benetakotasunaren erantzukizuna izango dute.

6.2. Eskaerak aurkeztea

Eskaera eta dokumentazioa posta elektronikoz baino ez da aurkeztu behar, honako helbide elektroniko honetan: bizkaiatenergia@bizkaiatalent.eus.

7. ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA eta LAGUNTZAREN IZAPIDETZEA

Lehen momentu batean hautagaitza formalizatzeko, posta elektronikoko baten bidez bidali beharko da eskatutako dokumentazioa.

Posta elektronikokoaren gaia honako hau izango da: **Bizkaia Programa Transferentzia Energetikoa: Eskatzailearen izena eta 2 abizenak**. Eskabide-orrian, laguntzaren xede den master zehatzaren izen osoa, unibertsitatea eta non ematen den adierazi beharko da, bai eta honako agiri hauek ere:

Nahitaezko dokumentazioa:

- a) NANaren edo AIZaren fotokopia.
- b) Banku-titulartasunaren ziurtagiria. Agiriak honako hauek izan behar ditu: Titularraren izena, kontu-zenbakia eta banku-erakundearen bulegoaren zigilua.
- c) Datu Pertsonalak Babesteko Klausula (I. ERANSKINA): Sinatutako alea, NANA, hautagaiaren izena eta bi abizenak zehaztuta.
- d) Zinpeko aitortpena: Eskaerak hiru dokumentu hauetako bat jaso behar du, hautagaiak deialdi honen helburu bererako laguntzak, dirulaguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak jaso dituen ala ez kontuan hartuta:

- ✓ Programa honetarako helburu bererako **beste laguntzarik jaso ez izanaren eta beste laguntza batzuen ebazpenaren zain ez egotea** zinpeko aitortpena (II. ERANSKINA): Sinatutako alea, hautagaiaren NANA, izena eta bi abizenak zehaztuta.
 - ✓ Programa honetarako helburu bererako **beste laguntza batzuk jaso izanaren** zinpeko aitortpena (III. ERANSKINA): Sinatutako alea, hautagaiaren NANA, izena eta bi abizenak zehaztuta. Agiri ofizial bat erantsi beharko da, laguntza eman duen erakundea eta haren zenbatekoa jasoko dituen.
 - ✓ Programa honen helburu bererako **beste laguntza batzuk eskatu izanaren eta horien ebazpenaren zain egotearen** zinpeko aitortpena (IV. ERANSKINA): Sinatutako alea, hautagaiaren NANA, izena eta bi abizenak zehaztuta. Dokumentu ofizial bat erantsi beharko da, laguntza eskatu den erakundea eta zenbatekoa jasoko dituen.
- e) Matrikularen frogagiria edo onarpen ofizialaren ziurtagiria, edo masterra ematen duen unibertsitateak emandako beste edozein agiri, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate batek 2022-2023 ikasturterako trantsizio energetikoko espezializazio-masterreko ikasketak egiteko masterraren matrikula onartu eta ordaindu dutela egiaztatzen duena.
- f) Honako agiri hauetako baten bidez egiaztatuko den unibertsitate-titulua:
- I. Unibertsitateko gradu-tituluaren edo lizentziaturaren kopia edo ziurtagiri akademikoa (ikasketa-espeditentea). Atzerrian edo publikoak ez diren Espainiako zentroetan lortutako tituluekin batera, agintaritza eskudunak emandako homologazioa aurkeztu beharko da.
 - II. Laguntzaren xede den masterrak unibertsitateko titulazio bat eskatzen badu onartzeko baldintza gisa, ez da nahitaezkoa izango titulu edo ziurtagiri akademikoa aurkeztea laguntza-eskabidean.

Eskatzailea izango da eskatutako datu eta dokumentu guztiak gehitzeko arduraduna. Eskatzailea izango da sartutako datuen eta eskatutako dokumentuen, horien egiazkotasunaren eta are datu garrantzitsuak ez ematearen erantzule ere.

8. HAUTAKETA PROZESUA

Laguntzak esleitzeko hautaketa-sistema honako hau kontuan hartuta egingo da:

- a. Funtsak banatu eta eskabideen erregistro-ordenaren arabera izapidetuko dira. Data eskaera jaso den mezu elektronikoan agertzen dena izango da.
- b. Deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiei emango zaie laguntza, aurrekontu erabilgarria agortu arte edo deialdiaren indarraldia amaitu arte edo deialdia aldeztu aurretik itxi arte.
- c. bizkaiatenergia@bizkaiatalent.eus helbide elektronikoan jasotako eskabideak baino ez dira onartuko.

Dokumenturen bat falta bada, hautagaiarekin harremanetan jarri ahal izango da, deialdiaren epeak horretarako aukera ematen badu eta Bizkaia Talent-eko langileen prestasunaren arabera.

Hautagaiek jakinarazpena bidali ahal izango dute bizkaiatenergia@bizkaiatalent.eus helbidera, akatsen bat antzemanaz gero.

Bizkaia Trantsizio Energetikoa Programako laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, baldin eta edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutatik, Estatukoetatik, Europar Batasunekoetatik edo nazioarteko erakundeetatik badatoz, baina ezin izango da, inola ere, finantzatutako masterraren kostua gainditu, ez bakarrik ez beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera.

Programa honetako laguntza eman ondoren gainditzen bada, soberakinari dagokion kopurua kenduko zaio.

Bizkaia Trantsizio Energetikoa Programaren helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jaso dituzten eskaerak ad hoc ebaluatuko dira, eta masterraren guztizko kostuaren eta jasotako laguntzen arteko aldeak Bizkaia Trantsizio Energetikoa Programak laguntza osoa (2.000 €) emateko aukera ematen badu soilik eman ahal izango da laguntza.

Onuradunek, jakin bezain laster, Bizkaia Talent-i jakinarazi beharko diote diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik lortu duten, eta, hala badagokio, egindako itzulketagutunaren kopia aurkeztu beharko dute.

9. EMATEKO PROZEDURA:

Laguntzak honela emango dira:

- Funtsak eskaeren erregistro-ordenaren arabera banatuko dira, betiere deialdian ezarritako baldintzak betetzen badituzte, aurrekontu erabilgarria agortu arte edo deialdiaren indarraldia amaitzen den egunera arte edo aldez aurretik itxi arte.

Bizkaia Talent-ek, eskaera bakoitzean aurkeztutako dokumentazioan oinarrituta ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, Programaren 26 beka emango ditu, eskaera jasotzen duen hurrenkeraren arabera. Laguntza horiek eskaera jaso den e-mailean adierazitako dataren eta orduaren arabera emango dira, eta eman beharreko guztizko laguntzen muga zuzkidura ekonomikoaren atalean ezarritako zenbatekoa izango da: 52.000 euro.

Bizkaia Talent-ek eskaera bakoitza jaso duela jakinaraziko die posta elektronikoz jasotako eskatzaile guztiei, ahalik eta azkarren. E-mail hori jaso ezean, programan parte hartu nahi duen pertsonak jakin behar du bere e-maila ez dela prozesatu eta, beraz, ez dela Programako hautagaien zerrendan agertzen.

ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Eskaera programan aurkezteak deialdiaren oinarri hauetan xedatutakoa onartzea ekarriko du.

Onuradunek honako hauek egin beharko dituzte:

- a) Beka eman dela jakinarazi eta bost eguneko epean beka onartzeko agiria sinatzea, salbuespenezko arrazoiengatik besterik hitzartzen ez bada.
- b) Masterra egiten duen unibertsitatearen funtzionamendu-arauak betetzea.
- c) Bizkaia Talent-i programaren helburu ona lortzeari eragiten dion edozein gorabehera jakinaraztea.

10. ONURADUN IZAERA GALTZEA

11.1.- Programaren onuradun-izaera iraungi ahal izango da, programa amaitzeaz gain, onuradunak berariaz uko egiten badio. Hautagai izaera ere gal daiteke betebeharrak ez betetzeagatik, hala nola master-titulua ez lortzeagatik.

11.2.- Oinarri hauek betetzen ez badira, edozein unetan gertatzen dela ere, programa automatikoki bertan behera geratuko da. Kasu horretan, onuradunak jasotako laguntza

itzuli beharko du. Onuradunak aipatutako konpromisoak – edo programaren baldintzetan sartutako beste edozein – betetzen ez baditu, Programak beretzat gordetzen du egoki irizten dion moduan jarduteko eskubidea, dagokion legezko bideak erabiliz.

Programaren onuradun izaera uko egiteagatik edo ez betetzeagatik galduz gero, oro har, sortu gabeko eskubide ekonomiko guztiak galdu ahal izango dira, bai eta Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako edozein programatako etorkizuneko hautaketa-prozesuetatik kanpo uztea ere eragingo du (behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuak, hala nola istripua, gaixotasuna, etab.).

I. ERANSKINA

DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO KLAUSULA

Datuak Babesteko 679/2016 Araudi Orokorrean eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan jasotako informazio-betebeharra betetzeko, **jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak honako honen erantzukizunpean tratatuko direla:**

Tratamenduaren arduraduna: Bizkaia Talent (Eraberrikuntza Eta Ezagutzan Adituak Diren Pertsonen Mugikortasuna Sustatzeko Elkarte)

IFK: G95326583

Egoitza soziala: Bizkaiko Parke Teknologikoa, 804 eraikina, 300 modulua – Laga bidea, 48160 Derio.

Harremanetarako e-maila: [mailto: bizkaiatenergia@bizkaiatalent.eus](mailto:bizkaiatenergia@bizkaiatalent.eus)

Tratamenduaren helburuak: Prozesu honetan zehar www.bizkaiatalent.eus edo **email** bidez ematen dizkiguzun datuak honetarako erabiliko dira:

- Zure profilaren egokitasuna ebaluatzea Bizkaia Transferentzia Energetikoa Programako bekara sartzeko.
- Zure hautagaitzaren egoerari buruzko informazioa ematea.
- Komunikazio elektronikoak bidaltzea **Bizkaia Talent**-ek garatzen dituen jarduera eta programei buruz.

Oinarri juridikoa

- 6.1.b artikulua. Kontratu bat egikaritzea

Interesduna zaren kontratu bat egikaritzeko beharrezkoak direlako tratatzen dira.

- 6.1.a artikulua. Interesdunaren baimena.

Bizkaia Transferentzia Energetikoa Programarako hautagai gisa aurkeztean eta Bizkaia Talent-en webgunean ezarritako eta argitaratutako Programaren oinarriak onartzean ematen duzun **berariazko baimena** oinarri hartuta.

Datuen kontserbazioa: Zure datuak **Bizkaia Talent**-en datu-baseetan sartu eta gordeko dira, eta jasotzen direnetik gutxienez 5 urtez gordeko dira.

Zure eskubideak: Zure datu pertsonalak ikusi, zuzendu, ezabatu eta haien tratamenduari aurka egin eta mugatzeko eskubideak erabil ditzakezu tratamenduaren arduradunaren aurrean, mezu elektronikoko bat bidaliz rgpd@bizkaialent.eus helbide elektronikora, erabili nahi duzun eskubidea adieraziz eta zure NANaren edo agiri baliokidearen kopia erantsiz.

Gure pribatutasun-politikari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero: <https://www.bizkaialent.eus/politica-de-privacidad/>.

Bizkaia Talent-ek antolatutako ekitaldiren batean izena emanaz gero, onartu egiten duzu ekitaldi horretan hartutako irudia eta ahotsa Bizkaia Talent-ek edo Bizkaiko Foru Aldundiak erabiltzea ikus-entzunezko materialak sortzeko, sare sozialetan edo komunikabideetan zabaltzeko, bai eta zerbitzuak sustatzeko eta komertzializatzeko ere. Ados ez bazaude, idatzi mezu elektronikoko bat rgpd@bizkaialent.eus eta bizkaiaenergia@bizkaialent.eus helbidetara..

Informazio gehiago nahi izanez gero, bisitatu gure pribatutasun politika.

IZEN-ABIZENAK: _____

NAN/AIZ: _____

_____ (e)n, 2022ko _____ (a)ren _____

(a/ea)n.

(Eskatzailearen sinadura)

II. ERANSKINA
ZINPEKO AITORPENA
EZ DA BESTE LAGUNTZARIK JASO EDO ESKATU

IZEN-ABIZENAK:

NAN/AIZ: _____

jaunak/andreak

_____ NAN/Pasaporte zenbakiduna, 2022/2023 ikasturtean
Bizkaia Trantsizio Energetikoa Programaren eskatzaile gisa;

ZINPEAN ADIERAZTEN DU:

Helburu bererako beste laguntzarik, dirulaguntzarik, diru-sarrerarik edo baliabiderik **jaso ez izana** (prestakuntza espezializatua finantzatzea, master motakoa, deialdiaren xedea), edozein administraziotatik edo erakunde publiko edo pribatutatik, estatukoetatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik.

Helburu bererako beste laguntzarik, dirulaguntzarik, diru-sarrerarik edo baliabiderik **eskaera bat ebazteko zain ez egotea** (prestakuntza espezializatua finantzatzea, master motakoa, deialdiaren xedea), edozein administraziotatik edo erakunde publiko edo pribatutatik, estatukoetatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik.

Eta jasota gera dadin, honako adierazpen hau sinatzen du,

_____ (e)n, 2022ko _____ (a)ren _____

(a/ea)n.

(Eskatzailearen sinadura)

III. ERANSKINA
ZINPEKO AITORPENA
JASOTAKO BESTE LAGUNTZA BATZUEN ZERRENDA

IZEN-ABIZENAK:

NAN/PASAPORTEA _____

jaunak/andreak

_____ NAN/Pasaporte zenbakiduna, 2022/2023 ikasturtean
Bizkaia Trantsizio Energetikoa Programaren eskatzaile gisa;

ZINPEAN ADIERAZTEN DU:

Helburu bererako beste laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabideak **jaso izana** (prestakuntza espezializatua finantzatzea, master motakoa, deialdiaren xedea), edozein administrazioetatik edo erakunde publiko edo pribatutatik, estatukoetatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik.

Bizkaia Trantsizio Energetikoa Programari eskatutako laguntzak ez du finantzatutako masterraren kostua gaindituko, ez bakarrik, ez beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera. Egiaztatze aldera, dokumentu honekin batera beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu direla ere jasotzen dut, laguntza hori eman didan agintari eskudun batek emandako ziurtagirien kopiarekin batera.

Eta jasota gera dadin, honako adierazpen hau sinatzen du,

_____ (e)n, 2022ko _____ (a)ren _____

(a/ea)n.

(Eskatzailearen sinadura)

IV. ERANSKINA
ZINPEKO AITORPENA
ESKATUTAKO BESTE LAGUNTZA BATZUEN ZERRENDA

IZEN-ABIZENAK:

NAN/PASAPORTEA _____

jaunak/andreak

_____ NAN/Pasaporte zenbakiduna, 2022/2023 ikasturtean
Bizkaia Trantsizio Energetikoa Programaren eskatzaile gisa;

ZINPEAN ADIERAZTEN DU:

Helburu bererako beste laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabideak **eskatu izana eta ebazpenaren zain egotea** (prestakuntza espezializatua finantzatzea, master motakoa, deialdiaren xedea), edozein administraziotatik edo erakunde publiko edo pribatutatik, estatukoetatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik.

Bizkaia Trantsizio Energetikoa Programari eskatutako laguntzak ez du finantzatutako masterraren kostua gaindituko, ez bakarrik, ez beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera. Egiaztatze aldera, dokumentu honekin batera beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk eskatu direla ere jasotzen dut, laguntza horri eskatu diodan agintari eskudun batek emandako ziurtagirien kopiarekin batera.

Eta jasota gera dadin, honako adierazpen hau sinatzen du,

_____ (e)n, 2022ko _____ (a)ren _____

(a/ea)n.

(Eskatzailearen sinadura)